

7. eta 8. GAIAK

- 1.- Zein da metoklopramidaren indikazioa? Nolako eragin desiragaitzak sortzen ditu?
- 2.- Zein ez da antiemetikoa?
 - a) Metoklopramida
 - b) Klorpromazina
 - c) Granisetron
 - d) Loperamida
- 3.- Zein da antiazidoa?
 - a) Sukralfatoa
 - b) Almagatoa
 - c) Klorpromazina
 - d) Ranitidina
- 4.- Zeintzuk dira sukralfatoaren indikazioak?
- 5.- Ranitidinari buruz zein da gezurra:
 - a) Antihistaminikoa da
 - b) Aho bidez egunean behin hartu behar da
 - c) Teofilinaren dosiak jaistea eskatzen du
 - d) Guztiak dira egia
- 6.- Zeintzuk dira *H.pylori*-k sortutako ultzeren tratamendurako gehien erabiltzen diren antibiotikoak?
- 7.- Zein da beherako kontrakoa?
 - a) Metoklopramida
 - b) Difenoxilatoa
 - c) Bisakodiloa
 - d) Sulfasalazina
- 8.- Zeintzuk dira bitamina liposolugarrien xurgapena oztopatzen dituzten laxanteak?

9.- Zeintzuk dira Krohn gaixotasunean eta kolitis ultzerotsuan erabiltzen diren antiinflamatorioak?

10.- Zein da intsulina ultra-azkarra:

- a) NPH
- b) Erregularra
- c) Intsulina glargina
- d) Lispro

11.- Zein da benabarnetik eman daitekeen intsulina?

- a) NPH
- b) Erregularra
- c) Intsulina glargina
- d) Lispro

12.- Zeintzuk dira intsulinarenean xurgapenean eragina duten faktoreak?

13.- Zeintzuk dira hipogluzemiak eragiten dituen sintomak?

14.- Zer da lipodistrofia eta nola ekidin daiteke?

15.- Zein da akarbosaren edo miglitolaren ekintza mekanikoa?